

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0781

GAIA: AXTROKI merkatari elkarte. Dirulaguntza izenduna

ESPEDIENTEA: 2025MDIR0002

INTERESDUNA: AXTROKI MERKATARI ELKARTEA (IFK: G75089904)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 3.500,00 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du AXTROKI MERKATARI ELKARTEA-ren alde, 2025. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmeneta eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Garapen jasagarria teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta AXTROKI MERKATARI ELKARTEA-ren (IFK: G75089904) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- AXTROKI MERKATARI ELKARTEA-ri 3.500,00 €-ko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa(k) antolatzeko:

- a) Elkarreak 2025 urtean antolatuko dituen jarduerak (Loratu eta Saiheski Errea) sortutako gastuak finantzatzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren 6. klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 3.500,00 €-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0100.481.431.50.01.2025 partidari egozte.